



# AHTren zundaketak gelditzeko kozentrazioa deitu dute Lakuntzan

---

STOP AHT ZUNDAKETAK :: 26/06/2023

Ekainaren 27an, asteartea, 19:00etan Lakuntzako plazan izango da kozentrazioa

Sakana eta Goierrri mehatxupearan daude, AHTren lanak egiteko zundaketa eta prospekzio eskaeren uholdea dela eta. Gainera, **zundaketak egiten saiatzen ari dira finka partikularretan, baimenik gabe eta alde z aurretik jakinarazi gabe**, Arbizun eta Ataunen gertatu den bezala. Prospekzio hauek Iruñea eta Euskal Y grekoa lotuko lituzkeen **abiadura handiko korridore berriaren obrak egiteko** lehen pausua dira, bai Aralar mendilerroa Ezkioraino zeharkatuz, bai Sakana osoa Gasteizeraino zeharkatuz.

Honengatik, **herritarren guztien babesa eta mobilizazioa** eskatzen dugu prospekzio hauek geldiarazteko. Izan ere, zentzurik gabeko proiektu horren aurrean benetako konponbideak daude, bideragarriak eta egiaztatuak, **trenaren egungo trazadura berrerabili, egokitu eta hobetzetik** pasatzen direnak.

**AHTren prospekzioei STOP.**

**AHT Gelditu, Landarlan, Otsotar, Sakana Trenaren Alde eta Sustrai Erakuntza fundazioa.**

---

<https://eh.lahaine.org/aht-zundaketen-kontrako-kozentrazioa-deitu>